**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2024OZER0018
**Gaia/**Asunto**:** Errenteriako etxebizitza komunitarioko gazteen emantzipazio prozesuan laguntzeko Bidelagun zerbitzua / Servicio Bidelagun de apoyo al proceso de emancipación de las personas jóvenes de la vivienda comunitaria de Errenteria
**Eskatzailea**/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P*******E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

**ERRENTERIAN URBIA PLAZA 2 ZENBAKIKO GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAKO BIDELAGUN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ACOMPAÑAMIENTO EN LAS VIVIENDAS COMUNITARIAS PARA JÓVENES SITAS EN PLAZA DE URBIA 2 DE ERRENTERIA.**

## 1.- AURREKARIAK

Errenteriako Gazteria azpisailak udalerriko gazteen artean “Marea ´Gora” deituriko parte hartzeko prozesua burutu zuen, horiek nolako Errenteria irudikatzen zuten jakitearren. Prozesu horretan ondorioztatu zen beraien kezka nabarmenena emantzipatzeko zailtasuna dela, eta horren bi ardatz nagusiak etxebizitza izatea eta lana eskuratzea direla.

Errenteriako Udalak, parte hartzeko prozesu horren bidez egindako Gazteria Planaren exekuzio garaian, gazteen emantzipazio politiketan sakondu eta urratsak emateko konpromisoa hartu zuen.

Helburu horrekin, Errenteriako Udalak Urbia plazako 2. zenbakian dagoen eraikina gazteentzako etxebizitza komunitarioetarako prestatu zuen.

Etxebizitza komunitarioaren proiektua udalerriko gazteek emantzipatzeko duten zailtasunari erantzuteko sortu zen, baina baita Gipuzkoan komunitatean oinarritutako etxebizitza eredua sustatzen aitzindaria den proiektu gisa ere.

Era berean, Errenteria Tentsiopeko Eremu izendatzearen esparruan egindako diagnostikoak ezartzen du udalerrian gaur egun dagoen emantzipazio-tasa % 37,3koa dela. Portzentaje hori Euskadiko emantzipazio-tasa baino handiagoa izan arren, oraindik ere ikuspegi desberdinetatik landu beharreko gaia da. Ildo horretan, Etxebizitza Planak, gazteentzako eta adinekoentzako bizitegi-formula berriak bultzatzen jarraitzeko beharra jasotzen du. Ildo horretan,

## 1.- ANTECEDENTES

La subárea de Juventud del Ayuntamiento llevó a cabo un proceso participativo entre las personas jóvenes del municipio, llamado “Marea Gora”, para conocer el tipo de ciudad que visualizan. En dicho proceso, se concluyó que su principal preocupación es la dificultad para emanciparse, siendo los dos pilares de la emancipación la vivienda y el trabajo.

El Ayuntamiento de Errenteria, en la ejecución del Plan de Juventud realizado a través de dicho proceso participativo, adquirió el compromiso de profundizar y dar pasos en favor de la emancipación de la juventud de Errenteria.

Con este objetivo el Ayuntamiento de Errenteria habilitó el edificio sito en la Plaza Urbia 2 para uso de Viviendas Comunitarias para jóvenes.

Este proyecto de Vivienda Comunitaria nació como una respuesta a la dificultad para emanciparse de los jóvenes del municipio, pero también como un proyecto pionero en Gipuzkoa en la promoción de un modelo de vivienda basado en la comunidad.

Igualmente en el marco de la declaración de Errenteria como Zona Tensionada, el diagnóstico realizado establece la tasa de emancipación actual en el municipio en un 37,3%. Porcentaje que aun siendo superior a la tasa de emancipación de Euskadi, sigue siendo una cuestión en la que se debe trabajar desde diferentes miradas. En este sentido el Plan de Vivienda, recoge la necesidad de continuar impulsando nuevas fórmulas habitacionales para personas jóvenes y

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

etxebizitza komunitarioei bultzada berri bat ematez, premia horri erantzuten zaio.

Etxebizitza komunitarioan ohikoa ez den alokairu-eredu bat sustatzen da, komunitatean oinarritua, epe luzera pertsona askoren egoera hobetzeko.

Komunitatearen funtzionatzeko moduak, espazio amankomunen erabileratik haratago, autogestioan oinarritutako proiektua eta honen balioak partekatzea eskatzen du.

Komunitatearen funtzionamentua asanblada bidez arautuko da, adostutako maiztasun batez bilduko dira bizilagunak eta asanblada honetan hartuko dira behar diren erabakiak.

Gazteen emantzipazio-prozesuak errazteko, Errenteriako Udalak hainbat baliabide jartzen ditu gazteen eskura, horien artean Bidelagun zerbitzua.

Horrelako programa batek behar bezala funtziona dezan, beharrezkotzat jotzen da komunitatean laguntzeko eta jarraipena egiteko zerbitzu bat kontratatzea, Bidelagun zerbitzua hain zuzen ere.

mayores. En este sentido dar un nuevo impulso a las viviendas comunitarias, intenta dar respuesta a esta necesidad.

La vivienda comunitaria promueve un modelo de alquiler distinto al habitual, basado en la comunidad, con la intención de mejorar, a largo plazo, la situación de muchas personas.

La forma de funcionamiento de la comunidad exige que más allá del uso de espacios comunes, se compartan un proyecto basado en la autogestión, así como sus valores.

El funcionamiento de la comunidad se regulará mediante asamblea, las personas residentes en la vivienda se reunirán con una periodicidad consensuada para tomar las decisiones necesarias.

Para favorecer los procesos de emancipación de las personas jóvenes el Ayuntamiento de Errenteria pone a disposición de las personas jóvenes distintos recursos, entre ellos el servicio Bidelagun.

Para el buen funcionamiento de un programa de estas características se considera necesaria la contratación de un servicio para acompañar y colaborar en la comunidad denominado Bidelagun.

**2.- KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen xedea da Errenteriako gazteentzako etxebizitza komunitarioetan laguntzeko "BIDELAGUN" izeneko programa zerbitzua emateko enpresa bat kontratatzea.

**2.- OBJETO DEL CONTRATO**

Es objeto del presente contrato la contratación de una empresa para la prestación del servicio denominado “BIDELAGUN”, programa destinado al acompañamiento en las viviendas comunitarias para jóvenes de Errenteria.

Proiektuaren inguruko hausnarketa lagundu eta zuzentzea da helburua, une honetan ematen ari den errealitatera egokituz, plano teorikotik plano praktikora pasatuz, eta parte-hartzaileen eta Udalaren artean proiektuaren diseinuan, funtzionamenduan eta kudeatzeko moduan egin beharreko hobekuntzak elkarrekin aztertuz.

El objetivo es acompañar y dirigir la reflexión sobre el proyecto adecuándolo a la realidad que se está dando en este momento, pasando del plano teórico al plano práctico, analizando conjuntamente, entre las personas participantes y el Ayuntamiento, las mejoras a introducir en el diseño del proyecto, en el funcionamiento y forma de gestión.

Aldi berean, beharrezkoa da elkarbizitza kudeaketa egokia lantzea eta proiektuaren komunitate perspektiba

Así mismo es necesario desarrollar un trabajo relacionado con la gestión de la convivencia y

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

indartzea lan komunitarioa, taldekoa eta bakarkakoa garatuz.

Esku-hartzea ondorengo baloreetan oinarrituko da: parte-hartzearen kultura, autogestioa eta elkarbizitza, balorean jarriaz identitate eta hizkuntza anitzak, hezkidetza eta elkarrenganako errespetua.

consolidar las bases de la perspectiva comunitaria del proyecto, mediante un trabajo comunitario, grupal e individual.

La intervención se realizará teniendo siempre presentes los siguientes valores: la cultura de la participación, la autogestión y la convivencia, el valor de las identidades múltiples, la coeducación, la diversidad lingüística y el respeto mutuo.

**3.- ZERBITZUAREN HELBURU NAGUSIAK:**

.- Etxebizitzan parte hartzen dutenen eta Udalaren arteko zubi lana egitea..

.- Proiektuarekiko hausnarketa zuzendu eta laguntzea, izan behar duen komunitate perspektiban sakondu eta sendotuz.

- Etxebizitzaren funtzionamenduan eta autogestioan ematen ari diren alderdi positiboak identifikatu eta indartzea.

.- Elkarbizitzaren gestioan ematen diren egoerak kudeatzeko garaian izan daitezkeen beharrak identifikatu eta baliabideak jasotzeko beharrezkoak diren prozesuak abian jartzea.

- Herriko ekintza eta proiektuetan parte-hartzaile aktibo izan daitezen sustatzea eta auzoarekiko harremana bermatzea.

- Etxebizitzan bizi direnen arteko harremanetarako guneak indartzea.

- Modu autonomoan bizitzeak suposatzen duen baliabide ekonomikoen kudeaketan aholkularitza eskaintzea gazteei.

- Gazteei etxebizitzaren kontsumoen (argia, ura, gasa...) gastuaz jabetzeko aholkuak ematea.

- Etxebizitza komunitarioan gertatuko diren matxura eta kalteen kudeaketan aholkuak ematea.

- Bizikidetzaren kudeaketa gainditzen duten laguntza-beharrak identifikatzea, eta horiek jorratzeko edo udalerrian dauden baliabideetara bideratzeko tresnak eskuratzeko prozesuak sortzea.

- Hainbat tresna identifikatzea eta transmititzea, gazteek proiektuan duten ibilbidea amaitu aurretik etxebizitza bilatzen laguntzeko.

**3.- OBJETIVOS DEL SERVICIO:**

- Servir de puente entre las personas participantes en la vivienda comunitaria y el Ayuntamiento.

.- Acompañar y dirigir la reflexión sobre el proyecto, consolidando las bases desde la perspectiva comunitaria.

- Identificar y reforzar los aspectos positivos de autogestión y funcionamiento que se vienen dando en la vivienda.

- Identificar necesidades de apoyo en la gestión de la convivencia y generar procesos para la adquisición de herramientas para poder hacerles frente.

- Fomentar la participación activa en proyectos y actividades del municipio y la relación con el barrio.

- Potenciar espacios para las relaciones de las personas que residen en la vivienda.

- Asesorar a las personas jóvenes en la gestión de los recursos económicos que supone vivir de forma autónoma.

- Asesorar a las personas jóvenes a tomar conciencia sobre el gasto de los consumos de la vivienda (luz, agua, gas, ...)

- Asesorar en la gestión de averías y daños en la vivienda comunitaria.

-Identificar necesidades de apoyo que transciendan la gestión de la convivencia, y generar procesos para adquirir herramientas para abordarlas o derivarlas a los recursos disponibles en el municipio.

-Identificar y transmitir diferentes herramientas con el objetivo de facilitar la búsqueda de vivienda antes de que las y los jóvenes concluyan su trayectoria en el

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

proyecto.

**4.- BIDELAGUN ZERBITZUAREN FUNTZIOAK**

Enpresako langileek, programa edozein izanik ere, bete beharreko eginkizunak:

- Egitasmoaren birkokapen prozesua burutzea, zerbitzuaren funtzionamendua ezagutuz, beharrak identifikatuz eta pertsona desberdinen ikus puntuak kontuan izanez.
- Birkokapen horretan adostasuna lortzeko ekintzen plangintza eta exekuzioa.
- Gazteekin hartu eman estua mantentzea.
- Bakoitzak dauzkan trebetasunak eta ardurak bultzatzea.
- Etxebizitzan sartu berri den pertsona batentzat borondatezko lanak non egin jakiteko, erreferente edo lagungarri izan daitekeen zerbitzuen katalogoa edo beste egitura bat eratzea.
- Etxean bizi direnen arteko elkarbizitzan izan ditzaketen gatazkak konpontzeko orientazioa, bitartekaritza eta ahalduntze lanak eskaintzea.
- Esleitutako lanen garapenarekin eta proiektua bultzatzeko hautemandako beharrekin zerikusia duten beharrezko monografikoak ematea eta dinamizatzea.
- Etxebizitzan bizi direnen arteko gatazkak bideratzeko orientazio edo/eta bitartekaritza lanak egingo dira, beti ere gatazka dutenen arteko elkar konpontzea bultzatuz.
- Gazteria sailarekin koordinazioa.
- Asanblearen gai ordena eta akta jasotzea.
- Hezkuntza eta Gazteria sailarekin batera, etxebizitza komunitarioko gazteei zuzendutako formakuntzak prestatu, garatu eta jarraipena egitea.
- Etxebizitza-aukerei buruzko aholkularitza eta jarraipena, banakakoa beharrezkoa ikusten bada. Gazteek proiektuan egindako ibilbidea amaitu aurretik etxebizitza bilatzen laguntzeko.

Funtzio guztiak aldatuak izan daitezke eta Hezkuntza eta

**4.- FUNCIONES DEL SERVICIO BIDELAGUN**

Las funciones a desarrollar por el personal de dicha empresa serán:

- Liderar el proceso de remodelación del proyecto, desde el conocimiento del funcionamiento del servicio, las necesidades y puntos de vista de las personas participantes.
- Planificación y ejecución de actividades dirigidas al consenso de dicha remodelación.
- Contacto cercano con las personas jóvenes.
- Potenciar las habilidades y responsabilidades personales.
- Creación de una cartera de servicios de voluntariado u otro modelo que sirva de referencia a las personas que se incorporen en la vivienda.
- Orientación, mediación y capacitación de las personas convivientes en la resolución de conflictos relacionados con la convivencia.
- Facilitar y dinamizar monográficos necesarios relacionados con el desarrollo de las labores asignadas y necesidades detectadas para el impulso del proyecto.
- Orientación y/o mediación en conflictos personales que se den en la vivienda potenciando siempre en primera instancia, la resolución de las mismos entre las personas implicadas.
- Coordinación con el área de Juventud.
- Preparación del orden del día de la Asamblea y acta correspondiente.
- Preparación, seguimiento y desarrollo, junto al área de Educación y Juventud, de las formaciones dirigidas a las personas jóvenes de la vivienda comunitaria.
- Asesoramiento y seguimiento, individualizado si fuese necesario, de las alternativas de vivienda. Con el objetivo de facilitar la búsqueda de vivienda antes de que las y los jóvenes concluyan su trayectoria en el proyecto.

Todas estas funciones pueden ser modificadas y se

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

Gazteria teknikariaren zuzendaritzapean gauzatuko dira.

llevarán a cabo bajo la supervisión y dirección del o de la técnica de Educación y Juventud.

**5.- DINAMIZATZAILEAREN BALDINTZA TEKNIKOAK.**

Kontratuari atxikitako langileek Gizarte eta Kultura Zerbitzuen edo Komunitaterako Zerbitzuen edo Eskuhartze Soziokomunitarioaren adarreko prestakuntzarekin lotutako titulazio akademikoa izan beharko dute.

Bidelagunak prozesu jarraitu bat egin behar du etxebizitza komunitarioko gazteekin, maiztasun jakin batekin bilduko da bai beraiekin eta baita Udalarekin ere.

Etxebizitza komunitario programa bera epe luzerako proiektua da, bertara joango diren gazteek urte batzuk egingo dituzte bertan eta garrantzitsua da bakoitzaren gaineko jarraipena egingo duen Bidelaguna modu iraunkor batean mantentzea.

Gazteen eta Udalaren arteko lankidetza ahalik eta estuena eta eraginkorrena izan dadin, pertsona dinamizatzaile bakarra izatea aurreikusten da.

**5.- REQUISITOS TÉCNICOS DE LA PERSONA DINAMIZADORA.**

El personal adscrito al contrato deberá estar en posesión de una titulación académica relacionada con formación de la rama de Servicios Socioculturales y a la Comunidad o intervención sociocomunitaria.

La figura de “Bidelagun” debe realizar un proceso continuo con los y las jóvenes de la vivienda comunitaria, se reunirá con una frecuencia determinada tanto con ellos como con el Ayuntamiento.

El propio programa de vivienda comunitaria es un proyecto a largo plazo, los y las jóvenes que residan en la misma estarán varios años y es importante mantener un mismo Bidelagun que haga un seguimiento permanente de cada joven.

Para que la colaboración entre las personas jóvenes y el Ayuntamiento sea lo más estrecha y eficaz posible, se prevé que sea una única persona dinamizadora.

**6.- ZERBITZUA EMATEKO EGUTEGIA, ETA ORDUTEGIA.**

Enpresa esleipendunak, ikasturte bakoitzaren hasieran, egutegi bat aurkeztu beharko du. Egutegi horretan, eginkizun bakoitzari dagozkion orduak zehatz-mehatz jasoko dira.

Zerbitzuaren barne egongo dira prestakuntza eta ebaluazioa eta urteko hilabete guztietan garatuko da.

Egutegi hori Udalak aztertuko du eta urtean egin beharreko ordu kopurura doituko da.

Enpresa adjudikazio hartzaileak urtero egin behar duen orduen kopurua Udalak erabakiko du beti ere egin beharreko lanen eta duen aurrekontuaren arabera. Erabaki hori enpresari jakinaraziko zaio eta horren arabera eskainiko du zerbitzua.

Zerbitzu-orduak urte osoan zehar banatuko dira, hilabete

**6. CALENDARIO Y HORARIO DE PRESTACIÓN DE SERVICIO.**

La empresa adjudicataria deberá presentar a principios de cada curso un calendario donde se recogerán las horas destinadas a cada función de manera detallada.

La ejecución del servicio incluirá la preparación y evaluación del mismo y se desarrollará durante todos los meses del año.

Este calendario será analizado por el Ayuntamiento y ajustado al número de horas que deberá realizar durante el año.

El número de horas anuales a realizar por la empresa adjudicataria será determinado por el Ayuntamiento en función de los trabajos a realizar y del presupuesto disponible. Esta decisión será comunicada a la empresa, que prestará el servicio en consecuencia.

Las horas de servicio se distribuirán durante todo el año

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

bakoitzean egindako lanaren arabera.

Aurreikuspen gisa langile baten jardunaren %50a kalkulatzen da zerbitzu honetarako baina Bidelagun zerbitzuak egin beharreko lanorduak hein handi batean etxebizitza komunitarioan dauden gazte kopuruaren araberakoa izango da eta kopuru hori deialdi bakoitzean desberdina izango da, ondorioz, lan jarduna ere desberdina izan daiteke urte batetik bestera.

Ordutegia malgua izango da eta zerbitzuaren jardueretara egokituko da.

**7.- LAN HITZARMENA**

Kontratu honetan aplikatu beharko den hitzarmena IV. Gipuzkoako esku-hartze sozialeko hitzarmena 2023-2025 urteetarako da, Laneko eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariaren 2024ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bidez onartua.

**8.- KONTRATUAREN IRAUPENA.**

Kontratuaren iraupena 2 urtetakoa izango da.

Zerbitzua kontratua sinatu eta biharamunean hasiko da ematen.

Kontratuak bi luzapen eduki ahal izango ditu: urtebetekoa bakoitza.

**9.- LANTOKIA.**

Enpresak bere lantokia izango du, baina bilera-gelak ere erabili ahal izango ditu orientazio- eta/edo bitartekotza-lanetarako eta antzekoetarako.

**10.- TXOSTENAK, URTEKO MEMORIA ETA EKINTZEN INFORMAZIO PUNTUALA.**

Urtero, abenduan, enpresa adjudikazio-hartzaileak burututako jarduerari buruzko memoria aurkeztuko du. Aurkeztuko dira: txosten kuantitatiboa (zenbat saio garatu diren, parte-hartzaile kopurua, generoa, adina, eta abar) eta kualitatiboa (zer nolako gaiak jorratu diren, parte-hartzaileen balorazioa, ekintzen egutegia, eta abar). Baita Udalak nahiz enpresa adjudikazio-hartzaileak interesgarriak deritzoten beste alderdi batzuk ere.

Era berean udaleko Gazteria sailarekin jarraipen bilerak egingo dira.

en función del trabajo desarrollado cada mes.

Como previsión se calcula el 50% de la actividad de una persona trabajadora para este servicio, pero las horas de trabajo a realizar por la figura de Bidelagun dependerán en gran medida del número de jóvenes que se encuentren en la vivienda comunitaria, que será diferente en cada convocatoria, por lo que la jornada laboral también puede ser diferente de un año a otro.

El horario será flexible y se adecuará a las actividades del servicio.

**7.- CONVENIO LABORAL**

En este contrato se aplicará el IV convenio de intervención social de Gipuzkoa para los años 2023-2025, aprobado por Resolución de 21 de marzo de 2024, del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social.

**8.- DURACIÓN DEL CONTRATO.**

La duración del contrato será de 2 años.

El servicio comenzará a prestarse al día siguiente de la formalización del contrato.

El contrato podrá ser objeto de dos prórrogas, por un periodo de un año cada una de ellas.

**9.- LUGAR DE TRABAJO.**

La empresa contará con su propio centro de trabajo sin perjuicio de poder utilizar salas de reuniones para las labores de orientación y/o mediación y similares.

**10.- INFORMES, MEMORIA ANUAL E INFORMACIÓN SOBRE ACTIVIDADES PUNTUALES.**

Anualmente, en diciembre, la empresa adjudicataria presentará una memoria de la actividad realizada. Se presentarán, tanto datos cuantitativos (número de sesiones que se han desarrollado, número de participantes, su edad, género, etc.) como cualitativos (qué temas se han trabajado, la valoración por parte de las personas participantes, calendario de actividades, etc.) y otros aspectos que el Ayuntamiento o la empresa adjudicataria consideren de interés.

Así mismo se harán reuniones de seguimiento con el área de Juventud.

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

Jarraipen honetan ere, proposamenak egingo dira, lehentasunak zehaztuko dira eta egin beharrekoak adostuko dira.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak hiru hilean behin jardueren egutegia aurkeztuko du, funtzio bakoitzari esleitutako ordu kopurua zehatz.mehatz jasota.

En estas reuniones de seguimiento, se harán propuestas, se establecerán las prioridades y se acordarán las acciones a llevar a cabo.

La empresa adjudicataria presentará trimestralmente el calendario de actividades donde se recogerán las horas destinadas a cada función de manera detallada.

**11- ERRENTERIAKO UDALAREN ESKUMENAK.**

Errenteriako Udalak, Gazteria Azpisailaren bitartez, koordinatu eta ikuskatuko ditu enpresa adjudikazio-hartzailearen eginkizunak.

**11.- FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA.**

El Ayuntamiento de Errenteria, a través de la subárea de Juventud, llevará a cabo la coordinación y supervisión de las labores encomendadas a la empresa adjudicataria.

**12.- HIZKUNTZA BALDINTZEN JARRAIPENA**

**12.- SEGUIMIENTO DE LOS CRITERIOS LINGÜÍSTICOS**

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

Baldintza-agiri honetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharko dira.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, baldintza administratiboen agirian zehaztutakoaren arabera.

Hori horrela, zerbitzu honetako zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

**a) Hizkuntza gaitasuna**

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio-hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Horretarako, enpresak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko konpromiso-orria (II. eranskina) sinatuko du baldintza-agirian zehaztutako hizkuntza gaitasun maila duten langileak kontratatuko dituela adierazteko, une oro herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak Errenteriako Udalari jakitera emango dio pertsona horien zerrenda.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langilerik balego horiek ordezteko kasuan ere.

Las obligaciones impuestas en este pliego se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística, de conformidad a lo establecido en el pliego de condiciones administrativas.

Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

**a) Competencia lingüística**

Durante todo el periodo contractual, las personas trabajadoras que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con las personas usuarias del servicio deberán estar capacitadas para trabajar en las dos lenguas oficiales.

La empresa adjudicataria firmará una hoja de compromiso (Anexo II) al objeto de declarar que contratará personal con la capacidad lingüística señalada en el pliego de condiciones técnicas, y garantizar de esa manera los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Las empresas presentarán en sus ofertas la relación de personas que emplearán e indicarán el conocimiento de euskera de las mismas.

Si en el momento de realizar la oferta las empresas no están en disposición de precisar la relación de personas que emplearán, tras la adjudicación del servicio aquella que resulta adjudicataria deberá designar el personal con la capacidad lingüística en el plazo concedido para depositar la fianza. Deberá, asimismo, presentar la relación de dichas personas al Ayuntamiento de Errenteria.

Una vez realizada la contratación, en el caso de que alguna nueva persona se incorpore al servicio o alguna de las personas trabajadoras sea sustituida, la empresa adjudicataria deberá comunicárselo a la administración contratante. Quien realice la sustitución o quien se incorpore deberá disponer de la capacidad lingüística solicitada. Habrá de cumplir ese mismo requisito en los casos de sustitución de personal contratado mediante subrogación, si lo hubiera.

Kontratu honetan zehazki

En este contrato, en concreto:

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin eta udal langileekin zuzeneko harremanean lan egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak, jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute (eranskina).

Kontratuaren zereginak jendaurrean gauzatuko dituzten pertsonek C1 gaitasunaren pareko maila izan behar dute:

- Ahozkoan: informazioa eman eta eskatzeko gaitasuna izan behar du, zuzentasun osoz eta jariotasunez, aurrez aurreko elkarrizketetan zein telefono bidezkoetan.
- Idatzizkoan: gai izan behar du eskutitzak, laburpenak, espedienteen barruko agiriak, eta abar gramatika zuzentasun osoz idazteko.

**b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza**

Azken urteotan euskararen erabilera areagotzeko egiten ari den ahalegina osatu nahi du Udalak zerbitzu honen bidez. Hori horrela, enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emango du Errenteriako Udalak emango lukeen baldintza bertsuetan.

Kontratuaren xedea osatzen duten zereginak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, betiere zerbitzuaren berezko ezaugarriek beste hizkuntza batean edo batzuetan ere egitea eskatzen ez badute.

Herritarrak Udalarekin harremanetan jartzen direnean harreman horiek zein hizkuntzatan izan nahi dituzten galdetzen die. Enpresa adjudikazio-hartzaileak herritarren hizkuntza hautua kontuan hartu eta zereginak betetzerakoan honela jardungo du:

**Ahozko harremana:**

- Herritarrekin oro har: zerbitzuaren erabiltzaileekiko ahozko lehenengo arreta, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izango da. Lehenengo harreman horretan hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela jakinaraziko die eta, hortik aurrerako jardunean haien hizkuntza hautuaren arabera jardungo dute.

La prestación del servicio objeto del contrato exige una relación directa con la ciudadanía y personal municipal, por lo que al objeto de ofrecerlo con total garantía es necesario que en función de las tareas que desempeñen las personas trabajadoras durante la duración del contrato tengan una competencia lingüística similar a la recogida en el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas (anexo).

Las personas que desempeñen las funciones del contrato en contacto con la ciudadanía deberán tener un nivel equivalente al nivel de competencia C1:

- Competencia oral: tendrá capacidad lingüística para solicitar y ofrecer información, con total corrección y fluidez, tanto en las relaciones presenciales como telefónicas.
- Competencia escrita: tendrá capacidad para redactar cartas, resúmenes y documentos extensos etc. con absoluta corrección gramatical.

**b) Idioma que se utilizará en la prestación del servicio**

Teniendo en cuenta que en estos últimos años el Ayuntamiento ha realizado un gran esfuerzo a favor de un mayor uso del euskera, por lo que la empresa adjudicataria realizará el servicio en unas condiciones similares a las que de hecho se exigen al Ayuntamiento de Errenteria.

Las tareas que constituyen objeto del contrato se realizarán en ambas lenguas oficiales, salvo que de las características intrínsecas de la prestación se derive que exigen además su realización en otra u otras lenguas.

En sus relaciones con la ciudadanía el Ayuntamiento consulta su opción lingüística. La empresa adjudicataria del servicio respetará dicha opción lingüística y en el desempaño de sus tareas procederá de la siguiente manera:

**Relación oral:**

- Con la ciudadanía en general: la primera atención oral a las personas usuarias del servicio, tanto en persona como por teléfono, será en euskera. En este primer contacto se les informará del derecho a elegir el idioma y a partir de ese momento actuarán en función de su opción lingüística. La persona usuaria podrá

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

Erabiltzaileak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

- Etxebizitzan bizi diren gazteekin: erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza-hautua bermatuko du.
- Bilerak, aurkezpenak, eztabaidak, prestakuntza saioak,...: ekintzaren hasieran hizkuntza ofizialen erabilera nola kudeatuko den adostu egingo da, eta:
  - parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak direnean, bilerak euskaraz egingo dira
  - bileran parte hartuko dutenen ulermen maila bermatua dagoenean, nagusiki euskaraz egingo da
  - euskaraz eginez gero partaide guztien ulermena bermatzerik ez dagoenean, euskarrien laguntzaz euskararen gutxieneko presentzia bermatzea sustatuko da (idatzizko informazioa, ppt aurkezpenak,...)

Udal ordezkariekin, berriz, honela jardungo du:

- Euskaraz, hala nahi duten ordezkari politikekin
- Langileekin: euskaraz

Idatzizko harremana:

Enpresak zerbitzuaren erabiltzaileei bideratzen dizkien agiri eta komunikazio guztiak (inprimakiak, oharrak, abisual, ordutegiak,,,) zein jardueren komunikaziorako erabiltzen dituen dibulgazio euskarriak eta komunikabideentzako oharrak euskaraz edo ele bitan sortu eta bideratuko ditu, ahozko harremanetarako adierazitako irizpide bertsuei jarraituz.

**c) Hizkuntza paisaia**

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak irizpide hurrenkera honen arabera erredaktatuko ditu:

- Mezuak piktograma bidez egingo ditu.

ejercer en cualquier momento su derecho a elegir el idioma.

- Jóvenes residentes en la vivienda: garantizará la elección lingüística de cada persona usuaria.
- Reuniones, presentaciones, debates, sesiones formativas, …: al inicio de la actividad se acordará el modo de gestionar el uso de las lenguas oficiales, de tal manera que:
  - cuando todas las personas que intervengan sean euskaldunes, la actividad se desarrollará en euskera
  - cuando esté garantizado que todas las personas tengan el nivel de comprensión necesario, se hará mayoritariamente en euskera
  - cuando por realizarse en euskera no se pueda garantizar la comprensión de todas las personas participantes, se garantizará la presencia mínima del euskera con la ayuda de diversos soportes (información escrita, presentación ppt, etc.).

Con los representantes municipales se procederá de la siguiente manera:

- En euskera, con los y las representantes políticas que así lo deseen
- Personal: en euskera

Relación escrita:

Todas las notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios...) a las personas usuarias del servicio así como los soportes divulgativos y las notas a los medios de comunicación que utilice para la comunicación de las actividades se realizarán en euskera o en euskera y castellano, siguiendo los mismos criterios señalados en el apartado referente a las comunicaciones verbales.

**c) Paisaje lingüístico**

La empresa adjudicataria redactará los rótulos, señales, notas, carteles y demás comunicaciones de carácter general que ponga a disposición de la ciudadanía durante la prestación del servicio de acuerdo al siguiente orden de criterios:

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas.

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo ditu euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan (udaletxea, kultur etxea,...).
- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo ditu, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...)
- Si los casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

**d) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Kontratuan zehar eratutako agiri guztiak euskaraz sortu eta bideratuko ditu:

- Proiektuaren amaierako memoria

- Hileroko jarraipenerako agiriak: gai zerrenda eta akta

Nolanahi ere, Gazteria sailak adierazita, enpresa adjudikazio-hartzaileak dokumentu hauek (baleude) ele bitan aurkeztuko ditu:

- ulertzeko beharrezko gaitasunik ez duten edo/eta ele bitan jasotzeko hautua egin dutenei eman beharrekoak.

- informazio batzordeetan kontratatutako zerbitzuari buruzko azalpenak ematea xede duten dokumentuak, baleude.

**d) Presentación de documentos a la administración**

Toda la documentación generada a lo largo del contrato la generará y tramitará en euskera:

- Memoria final del proyecto

- Documentos de seguimiento mensual: orden del día y acta

No obstante, la empresa, a petición del departamento de Juventud, presentará en los dos idiomas oficiales los documentos que:

- se deban entregar a quienes no posean la capacidad de comprensión necesaria y/o hayan optado por la opción bilingüe.

- tengan como finalidad dar explicaciones sobre el servicio contratado en las comisiones informativas.

**Hizkuntza baldintzen jarraipena**

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Gazteria sailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

**Seguimiento de los criterios lingüísticos**

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El área de Juventud pondrá en contacto a la empresa adjudicataria con el departamento de Política Lingüística Municipal al objeto de que realice una entrevista a las personas designadas para la prestación del servicio de atención directa al público, en la que se verifique que tienen la capacidad lingüística necesaria para trabajar con total garantía en los dos idiomas oficiales. Quienes presenten alguna de las titulaciones recogidas en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas no tendrán que realizar la entrevista. Asimismo, en base al Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

El día y hora de la entrevista serán consensuadas entre el departamento de Política Lingüística Municipal y las y los profesionales, y se realizará como máximo dentro del plazo de quince días desde el comienzo de la prestación del servicio.

Udal Hizkuntza Politika sailak elkarrizketa egin duten langile guztien euskara gaitasunaren inguruko txostena emango du. Zerbitzua jendaurrean ematen jarraitzeko ezinbestekoa da Udal Hizkuntz a Politikaren aldeko txostena eskuratzea. Elkarrizketan jendaurreko funtzioak bi hizkuntzetan betetzeko beharrezko gaitasuna egiaztatu ezean, langilea ordezteko eskatuko zaio enpresari.

El departamento de Política Lingüística Municipal emitirá informe sobre cada persona que realice la entrevista. Para prestar servicio de cara a la ciudadanía es imprescindible el informe favorable del departamento de Política Lingüística Municipal, por lo que se exigirá a la empresa que sustituya a las personas que en la entrevista no acrediten la capacidad lingüística necesaria para desempeñar sus funciones de atención al público en los dos idiomas oficiales.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan-kasuan).

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

**13. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK**

Obligazio horiek zehazki araututa daude honako hauetan: 2004/18/EE Zuzentarauaren 24. artikuluan; 3/2007 Lege Organikoaren 33. eta 34. artikuluetan; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Erabakiaren IX.3. Atalean.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ere jasota daude. Lege horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Kontratu honetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako hurrengo exekuzio baldintza sozialak sartuko dira:

1. Enpresa esleipendunak, prestazioa egiterakoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.

2. 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, aurreko emakumezko eta gizonekoen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, aldatzen duena, kontratua esleitu zaion enpresak, 50 langile baino gehiagoko plantilla badu, hitzarmen kolektiboen erregistroa aurkeztu beharko du.

**13. CRITERIOS PARA EL IMPULSO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES**

Dichas obligaciones están expresamente reguladas en el artículo 24 de la Directiva 2004/18/CE, los artículos 33 y 34 de la Ley orgánica 3/2007, el artículo 22 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y el apartado IX.3 del Acuerdo de Gobierno Vasco «sobre incorporación de criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de su sector público».

Asimismo, también se recogen en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

Se incorporan al presente contrato las siguientes condiciones de ejecución de carácter social relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres:

1. La empresa adjudicataria estará obligada a aplicar, al realizar la prestación, medidas destinadas a cumplir los principios y obligaciones establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

2. Tras la aprobación del Real Decreto-ley 6/2019, de 1 de marzo, de medida urgentes para la garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación, que modifica la anterior Ley Órganica, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Hombres y Mujeres la empresa adjudicataria del contrato, en el caso de que tenga una plantilla de más de 50 personas, deberá aportar la acreditación de tener registrado un Plan de igualdad en el Registro de convenios y acuerdos colectivos de trabajo.

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

3. Enpresa esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, eta bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

4. Enpresa edo entitate esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

5. Enpresa esleipendunak memoria bat aurkeztu beharko du, kontratuaren erabiltzaileen eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen datuak sexuaren arabera bereizita, azken faktura aurkeztu baino lehen.

3. La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación toda la documentación, publicidad, imagen o materiales, con motivo de la ejecución del contrato, en las dos lenguas oficiales y tanto de forma escrita como oral. Asimismo, se deben fomentar los valores de igualdad, representación equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y diversidad de roles e identidades de género en la imagen de las mujeres.

4. La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de las medidas necesarias para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en los contratos en los que participen más de diez trabajadores.

5. La empresa adjudicataria deberá presentar una memoria desagregada por sexo de los datos de las personas usuarias del contrato y del personal adscrito a la ejecución del contrato, con anterioridad a la presentación de la factura final.

**14- ENPRESA ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK.**

Enpresa adjudikazio-hartzailea behartuta dago lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko higienearen alorrean indarrean dauden legezko xedapen guztiak betetzera. Horiek bete ezean, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango.

**14.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.**

La empresa adjudicataria está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social e higiene en el trabajo, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.

**15. DATUEN BABESA**

- Zerbitzu bakoitzari dagokionez, datu hauek lagako dira:

- Harremanetarako datuak: izena, abizenak, telefonoa, helbidea, helbide elektronikoa, jaioteguna

Lagapenaren helburua:

Etxebizitza komunitarioan bizi diren pertsonei buruzko datuak laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzeko baino ez dira erabiliko, eta pertsona horri etxebizitzan baja ematen zaionean ezabatuko dira.

**15. PROTECCIÓN DE DATOS**

- Con respecto a cada servicio, se realizará la cesión de los siguientes datos:

- Datos de contacto: nombre, apellidos, teléfono, dirección, email, fecha nacimiento

Objetivo de dicha cesión:

Los datos referentes a las personas que residan en la vivienda comunitaria, se utilizarán únicamente con fines de ofrecer el servicio de acompañamiento y asesoramiento y serán eliminados una vez que la persona se dé de baja en la vivienda.

**16. ZIGORRAK**

**16.1.- Hutsegite oso larriak (kontratuaren prezioaren**

**16. PENALIDADES**

**16.1.- Faltas muy graves (5% del precio del contrato,**

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

**%5, BEZa gabe):**

- Kontratuaren xede den prestazioaren hasiera atzeratzea edo zerbitzua bertan behera uztea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

- Kontratuaren xedea lagatzea, berrakuratzea edo osorik edo zati batean eskualdatzea, Udalaren baimen espresurik gabe.

- Kontratua betetzeko baldintza bereziak ez betetzea.

- Esleipen-irizpideei lotutako eskaintzaren ezaugarriak ez betetzea.

- Zerbitzua zaintzeaz arduratzen den zerbitzuaren arduradunen jarraibideei kasurik ez egitea, lanaren garapenari eta, oro har, zerbitzua emateko arauei dagokienez.

- Kontratatutako langileek zerbitzuaren hartzaileekin eta, oro har, herritarrarekin izandako gorabeherak, bai tratu desegokiagatik, bai lana gaizki egiteagatik.

- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

**16.2.- Hutsegite larriak (kontratuaren prezioaren %3, BEZa gabe):**

- Atzerapen ez-sistematikoa lanak egitean.

- Oso larritzat jotzen ez diren agirietan ezarritako baldintza eta betebeharretako edozein ez betetzea.

- Udalak kontratatutako langileen eskura jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak gaizki erabiltzea.

- Hutsegite arinak behin eta berriz egitea.

**16.3.- Hutsegite arinak (kontratuaren prezioaren %1, BEZa gabe):**

- Aurretik aurreikusi ez diren gainerako guztiak, baldin eta, nolabait, pleguetan ezarritako baldintzen kalterako badira, eta kontratuaren xedea betetzeko kalte ez larria eragiten badute.

Errenterian, fecha de la firma

**IVA excluido):**

- Demora en el comienzo de la prestación objeto del contrato o la cesación en la prestación del mismo, salvo causas de fuerza mayor.

- Cesión, subarriendo o traspaso total o parcial del objeto del contrato, sin autorización expresa del Ayuntamiento.

- Incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución del contrato.

- Incumplimiento de características de la oferta vinculadas a criterios de adjudicación.

- Desobediencia a las instrucciones de los responsables del Servicio encargado de la vigilancia de la prestación, relativas al desarrollo del trabajo y, en general, a las normas que regulan la prestación de los mismos.

- Incidentes del personal contratado con los destinatarios del servicio y el ciudadano en general, tanto por trato incorrecto, como por deficiencia en la prestación del trabajo.

- Reiteración de dos o más infracciones graves.

**16.2.- Faltas graves (3% del precio del contrato, IVA excluido):**

- Retraso no sistemático en la prestación de los trabajos.

- Incumplimiento de cualquiera de las condiciones y obligaciones establecidas en los pliegos que no sea calificados como muy graves.

- Utilización incorrecta de los medios materiales e infraestructura puestos por el Ayuntamiento a disposición del personal contratado.

- Reiteración en la comisión de faltas leves.

**16.3.- Faltas leves (1% del precio del contrato, IVA excluido):**

- Todas las demás no previstas anteriormente y que, de algún modo, signifiquen detrimento de las condiciones establecidas en los pliegos, con perjuicio no grave en la prestación del objeto del contrato.

Errenteria, sinaduraren egunean

ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334

GAZTERIA TEKNIKARIA / TÉCNICA DE JUVENTUD

Stua/Fdo: Patricia Arocena Gorostidi



EKS | CSV: **ESKUb24cf606-e4e8-4fdf-9123-c8b7f3360334**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2024OZER0018-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA/DOCUMENTO CONDICIONES |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: PATRICIA AROCENA GOROSTIDI - 35775003K
Kulturako erdi mailako teknikaria
Data / Fecha: 2025/03/04 13:27:48